



## EDUKIAK, PARTEHARTZAILEAK ETA METODOLOGIA

Abiapuntu bezala, Euskararen arauak berak bereizten dituen hizkuntza normalkuntzaren aplikazio eremuak aztertu nahi ziren, eta, horretarako, legeak jasotzen dituen hiru esparruak hartu genituen lanerako ardatz. Ordea, hiru esparruez gain, legean trataera eskasa izanagatik ere, azken aldian nabarmendu den beste gai bat ere jaso behar zela iruditu zitzaigun, Justizia Administrazioarena, hain zuzen ere. Lau lan-arlo zedarriztatu ziren, beraz: Hezkuntza, Administrazioa, Komunikabideak eta Justizia Administrazioa.

- *Hezkuntzari* zegokionean, Mikel Zalbide, Jaurilaritzako Hezkuntza Saitetik, *Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntzaren normalkuntzaz* arduratu zen; Andoni Bergara, abokatua, *Euskal Herriko unibertsitateen hizkuntza ereduez*, eta, Andoni Barreñak, Salamancako Unibertsitateko euskal filologiako irakaslea, berriz, *Hizkuntzaren kalitatea irakaskuntza sisteman* landu zuen. Itziar Idiazabal EHuko irakasleak zuzendu zuen debatea.

- *Administrazioaren* gainean aritu ziren, Iñaki Agirreazkuenaga, EHuko irakaslea, *Euskara Administrazio Publikoetan* landu zuena eta Josu Erkoreka, HAEEko zuzendaria *Euskararen erabilera Administrazio Publikoaren barne-harremanetan* gaiaren inguruan aritu zena. Mahai horren zuzendari Gotzon Egia izan genuen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara arduraduna dena.

- *Komunikabideak* jorrazteko hainbat aditu bildu ziren Javier Diaz Noci, EHuko irakaslearen ardurapean, Hasier Etxeberria, idazle eta kazetaria, *Euska Irrati Telebistaz* aritu zen; Martxelo Otamendi, Egunkariaren zuzendaria, *Hedadura nazionalako prentsa eta aldizkariak*; *Komunikabide lokalen* gainean berriz, Arrasate Presseko, Joxe Mari Mujika aritu zen; eta, azkenik, Josemari Velez de Mendizabal, idazle eta Eusko Ikaskuntzako gerenteak, *Euskara Interneten* landu zuen.

- *Justizia Administrazioaren* gaineko gogoeta, Abel Muniategi, Justizia Sailburuordearen gidaritzapean egin zen. Bertan izan genituen Jaime Tapia epailea, Arabako dekanoa dena eta Patxi Etxeberria, EHuko irakaslea.

Azterketa osatzeko beste ikuspegi batzuk jorrazteko behar ziren, hala nola,

- *Euskararen Legearen sorrera eta eztabaida*, Pedro Miguel Etxenike, garaiko Kultura Saiburuak, eta Jose Luis Lizundia, orduko Euskadiko Ezkerrako legebiltzarkideak egin zutena;

- ikuspegi konparatua berriz, eskeini ziguten, Antoni Milian i Massanak, zeinak *Katalunako hizkuntza politikarako legeak dakartzan berrikuntzak* aztertu baitzituen eta Xabier Iriandok, *nazioarteko eta Europar Batasuneako ordenamenduetan hizkuntza eskubideen babes juridikzionala* jorrazteko.

Hirugarrenik, azken urteetako hizkuntza politikak aztertu behar ziren, eta hartarako

- *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* azaldu zigun Xabier Aizpuru, Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako ordezkariak

- eta, *Euskararen Aldeko Akordioa*, Kontseiluko arduradunak berak, Xabier Mendiguren Bereziartuk.

Azkenik, itxiera hitzaldi gisa, *Europar Batasuneko hizkuntza politikaren* berri izan genuen *Ombudsman*-aren bulegoko arduradunaren, Peter Dyrberg-en eskutik.

Gaiok jorrazteko modurik egokienaren bila, erabaki genuen mintegiaren lan-metodoa erabiltzea. Izan ere, gure xedea baitzen arauaren azterketa sakon eta kritikoa egitea. Horrela bada, gai-esparru bakoitza lan-talde bati eman genion, gorago aipatutako adituei, hain zuzen ere, eta berain arteko koordinazioa zuzendari baten ardurapean utzi genuen. Bestalde, jarduru

naldietan izen emandako lagunen artean gehienak ziren hizkuntza kontuetan adituak eta horrek eztabaida eta galdera saio emankorrek ekarri zituen adituen azalpenen atzetik. Etorkizuneko ildoak eta nondik norakoak iradokitzeke berriz, mahai inguru bat egin zen lantalde gutzien zuzendariak eta emaitzak bildu zituena.

## GOGOETA ETA EZTABAIDA

Lehenengo ataza legearen sektore bakoitzarekiko garapena eta aplikazio maila aztertzea izan zen. Ausnarketaren joanean garbi azaldu zen desarroilo haundieneko eremuak hezkuntza ez unibertsitarioa eta euskal administrazioak izan direla, hurrenkera horretan. Oso atzetik berriz, arau mailako garapen eskasarekin hedabideak eta justizia administrazioa datoz.

Hezkuntzari dagokionean, hainbat gogeta egin zen, hala nola, legea bera, onartu zenerako egiten hasia zen erreforma babestera etorri zela. Hizkuntzaren normalkuntzaren kariaz egindako erreforma izan zen hain zuzen ere hezkuntza sistema eguneratu eta hobetzeko motibazioa. Ordutik hona, hizkuntza ereduaren antolamenduak garapen handia izan du (M. Zalbidek xehe aztertzen du garapen hau bere lanean). Ordea, zenbait aukera ere galdu da bidean oinarritzko hezkuntzaren hizkuntza mailako erreforma sendotzeko balio izango zutenak, LOGSE delakoa eta Eskola Publikoaren Legea hain zuzen ere (I. Idiazabal).

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen inguruan datu adierazgarriak eman ziren euskalduntze planek, orain artekoan, zenbait lanpostu ikutu dituzten eta administrazioaren zein atal geratu diren euskalduntze programetatik at (horien artean, nagusienak Osakidetza, Ertzantza, eta estatuko administrazio periferikoa). Agirreazkuenagak proposatu zuen Administrazioetako hizkuntza plangintzak, tokian tokiko egoera soziolinguistikora egokitzea. Administrazio bakoitzak bere hizkuntza normalkuntza plana onartzeko arauak lege lerruna falta duela azpimarratu zen, horrek ezogonkortasuna baitakarkie planei (J. Erkoreka). Bestalde, Administrazioarekin harremana duten pribatuei hizkuntza eskakizuna ezartzearen aukerak ere aipatu ziren, eta Kataluinako hizkuntza lege berria jarri zen horren eredu; euskararen erabileraren normalkuntzarako legeak ozta-ozta ematen baitu aukerarik horretarako.

Ikusentzunezko hedabideen eremuan eztabaida luzea eman zen EITBren hizkuntza politikaren inguruan. Dudan jarri zen kateen arteko hizkuntza banaketa eta horrek berekin ekarri duen kanale bakoitzean ematen diren gaien aukeraketa egokia izan ote den. Hasier Etxeberriak iradoki zuen, telebistaren merkatuaren liberalizazioaren aurrean, euskarazko telebista bakar batek ozeanoan galdutako uhartetxo bat izateko arriskua duela, eta neurriak hartu beharra zegoela gainera datorkigun oferta zabalaren aurrean. Haren ustez uhinetan euskararen presentzia haunditzeko irtenbide bat izan daiteke kanale tematikoak, egunean zenbait orduz emitituko dutenak sortzea, telebista kanale bakar baten orde. Hedabide idatzien munduan berriz gogorarazi zitzaigun sektorea berez ahula dela eta, beste laguntza batzuren artean, arautu beharra dagoela, normalkuntzarako beste lege batzuetan egin izan den legez, euskaraz egin behar den publizitate ofizialaren kuota (M. Otamendi).

Azkenik, justizia administrazioaren inguruko gogoetan nabarmendu zen administrazio independente horretan hizkuntza eskakizunak jartzearen zailtasunak norainokoak ziren. Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldaketa bat behar dela azpimarratu zen. Bien bitartean, P. Etxeberriak, indarrean dagoen legeria erabiliz epaiketa euskaldunak egiteko aukerak aztertu zituen.

Eztabaidetan agertu zen kezka garrantzitsu bat izan zen hizkuntza eskubideen babes juridikozionalari buruzkoa; izan ere, ez ordenamendu nazionalak ezta nazioartekoek ere ez baitute eskubide horien egikaritzea ziurtatuko duen arauaketa zehatzik egiten. Babes horren beharra aipatu zen eskubide horiek erabili ahal izateko giltza bezala.

Hizkuntzaren erabiltzaileetatik gertuen dauden eremuetan, hezkuntzan eta administrazioan hain zuzen ere, legeaz gaindiko kezka nagusia euskararen erabilerarena da. Hezkuntzak berak ez du ziurtatzen euskaldundu den umeak (azkenean eskolak euskalduntzen baitu haurra, izan ere, lau ikaslelik hiru ez baitira etxetik euskaldun), eskola ordutatik kanpo euskara erabiliko duenik. Administrazioan bertan ere, hiritarrari zerbitzua euskaraz emateko, hiritarrak berak euskaraz egin behar du; eta hori ez da askotan gertatzen, euskaldun direnen artean ere.

Etokizunerako ildoei heldu zitzaizenean, besteak beste, hizkuntzaren erabileraren erronka nabarmendu zen. Hezkuntzari dagokionean, haurrari eskolatik kanpo euskara erabiltzeko aukera eta gogoia eman behar zaio. Hezkuntza izan baita euskalduntzearen motore, ezin da, erabilerari dagokionean, bera bakarrik utzi. Umearen ingurua euskalduntzeko eta euskara erabiltzearen erakargarritasuna pizteko neurriak dira, hain zuzen ere, Euskara Biziberritzeko Planaren ardatzetako bat (X. Aizpuru). Beste eremu batzuetan, dela administrazioan dela Unibersitate mailako irakaskuntzan euskararen erabilera zuzenean dago lotuta hizkuntzaren kalitateari. Behin baino gehiagotan azpimarratu zuten adituek hizkuntzaren kalitatea hobetzea zela maila jasoetan erabilera bultzatzeko modu bakarra. Dударik ez, hizkuntza erabiltzera bultzatuko duten beste faktore batzuk ere baditu hiztunak, esate baterako agintariak hizkuntza hori erabiltzea beren jardura publikoeta, edo hiritarrarengandik gertuko zerbitzu publikoek euskaraz erantzun ahal izatea (ertzain batek esate baterako).

Aipatu erronka horiei erantzuteko nondik norakoak jorratu zirenean zenbait iradokizun egin ziren. Lehenik eta behin, ez zen ikusten legea aldatu edo berria egiteko aukera onik. Horren ordeaz, azpimarratu zen Euskararen Legearen babesean, sektore estrategiko batzuk bereizi beharra zegoela (Euskara Biziberritzeko Plana), hiztunen erabilera sustatzeko (batez ere eskola haurrena) eta hizkuntzaren kalitatea hobetzeko. Sektore horien garapenerako gune lege sektorialak dira. Administrazioari dagokionean, esate baterako, eta udaletan euskararen erabilerak duen garrantzia gogoan, etorkizunean udal lege batek hizkuntzaren normalkuntzarako atal bat izan dezan eskatu zen, tokiko administrazioen hizkuntza jarduerak babestuko dituen.

## **ARGITARAPENA**

Bi lanegun horietan zehar hausnartutakoak bildu ditugu ELERIA, Euskal Legelarien Aldizkariaren, bostgarren alean. Publikazioari hizkuntza eskubideen gaineko bibliografia espezialdua gehitu diogu, Xabier Iriondoren eskutik.

Bestetik, gorago aipatu mahai ingurua, lan-taldeen zuzendari guztiak eta bertan jasotako emaitzak laburbildu zituena, Euskonews aldizkari elektronikoan duzue entzungai (<http://www.euskonews.com>)

## **ESKERRAK**

Bukatzeko eskerrak eman behar dizkiegu antolatzaileok, gurekin batera dela antolamenduan dela iradokizunetan lagun izan ditugun gizabanako eta erakundeei. Lehenik Koro Garmendia Yarzari, jardunaldion idazkari izan denari, bere bizkar gainean hartu baitu antolamenduaren ardura pisuena, eta bereziki, Josu Erkoreka, HAEeko zuzendari denari bere iradokizun eta erakunde mailako laguntzagatik. Gregorio Monreali eta Iñaki Agirreazkuenagari, ere zor dizkiegu eskerrak beren iradokizun eta laguntzagatik eta, azkenik, Josemari Velez de Mendizabali, Eusko Ikaskuntzaren izenean bere laguntza osoa eman baitigu.

*Itziar Alkorta Idiakez*